

IGERILARIAREN GIDA

ZMZ

ZARAUTZ-MOLLARRI-ZARAUTZ

2026ko uztailaren 18an, 10:00etan

Distantzia: 5.000 m

Kopurua: 400 igerilari

PROGRAMA

Ostirala eta larunbata, uztailak 17 eta 18

Igerilariaren poltsa jasotzea



Ostirala 17 12:00-20:00

Larunbata 18 8:00-9:00



Duke Enea, Zarautz

Derrigorrezkoa izango da NANA eta izen-ematearen baieztapena aurkeztea poltsa eta dortsala jasotzeko. Poltsa eta dortsala ezin badira pertsonalki jaso, hirugarren pertsona batek jaso ahal izango ditu, NANaren fotokopia eta izena eman duen pertsonaren izen-ematearen baieztapena aurkeztuta.

Larunbata, uztailak 18

Kontsigna: utzi/jaso poltsa



Duke Enea, Zarautz

Igerilariaren poltsan aurkituko duzuen zinta itsaskorra itsatsi beharko duzue kontsignan utziko duzuen motxilan. Zinta horrek dortsal zenbakia du, eta identifikazioa erraztuko du. Hori baliagarria izango da identifikatzeko, eta probaren ondoren errazago itzultzeko.

ORDUTEGIA

Zarautzen, Duke Enean:

- Utzi: 08:00etatik aurrera
- Jaso: 14:00 baino lehen

Ordutegitik kanpo entregatutako poltsak ez dira onartuko. Poltsetan balio handiko edo hauskorak diren objekturik ez sartzea gomendatzen da. Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko objektu horiek izan ditzaketen galeren edo kalteen erantzukizuna. Era berean, parte-hartzaileak bere poltsa manipulatzea baimentzen du.

Dortsal zenbakia markatzea



Duke Enea, Zarautz

Nahitaezkoa izango da dortsalaren zenbakia sorbalda bakoitzean markatzea. Markatzeko gunea Duke Enean izango da, kontsignan.

Probaren hasiera



10:00 - Zarauzko portua

Zarautz-Mollarri-Zarautz zeharkaldiak 5.000 metroko ibilbidea izango du. Irteera Zarauzko portuan egingo da. Handik, Zarauzko hondartzarekin paraleloan igeri eginez, lehenengo lau buiak eskuinaldean utziko dira. Ondoren, Mollarri pareko arrokarara iritsi, bosgarren buia eskuinaldean utzita biratu, eta itzuleran aurreko lau buiak ezker aldean utziz egingo da bidea.

Igerilariak porturako norabide egokia mantendu beharko dute, ibilbidea hondartzaren ertzeratik gehiegi hurbildu gabe osatuz. Zeharkaldia Zarauzko portuko arrapalan amaituko da.

*ADI!! uztailaren 18 eta 19 an, Espainiako Ur Irekien Txapelketa egingo da. Zarautz-Mollarri-Zarautz probaren kasuan, irteera, 10: 15 ean izango da.

Sari banaketa



13:00 - Duke Enea, Zarautz

- Gizonezko zein emakumezko kategoria bakoitzeko lehen 3 pertsonak.
- Zarauzko (edo Zarautz Balea Igeriketa Klubeko) lehen pertsona sailkapen orokorrean, gizon zein emakumezkoetan.
- Kategoria absolutuko (ZMZ + GZ sailkapenetan) barne-ligako irabazleei eskudiruzko sari bat banatuko zaie (1. 500 €, 1.000 €, 3. 500 €). Hortaz gain, parte-hartzaile bakoitzak domina bat jasoko du.
- Partaidetza irekia da, lizentzia ez da derrigorrezkoa.

IBILBIDEA



ARAUDIA




Nahitaezkoa da probako parte-hartzaile bakoitzak araudia irakurtzea eta klausula bakoitza betetzea, proban parte hartu ahal izateko. Araudia travesiagetariazarautz.com webgunean dago ikusgai.

ARAUDIA IRAKURRI (PDF)

Asteburuko proben inguruko oharak, azken berriak, argazkiak eta bestelako edukiak ezagutzeko, jarraitu gure sare sozialak.

 **@travesiagz**

 **@TravesiaGetariaZarautzZeharkaldia**



Babesle nagusiak



Babesleak



Babesle Instituzionalak



Laguntzaileak

